



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko maiatzaren 7a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>


Nerea Arrien

(Lekeitio, 1976)

Nerea Arrien Elordi idazleak biokimika eta piano ikasketak egin zituen eta irakaskuntzan egiten du lan.

Idatzi dituen bi ipuinek, **Hiria eta olatua** 2011ean eta **Bi bala** 2013an, sari bana jaso zuten. 2016an **Xabier Lizardi** saria irabazi zuen **Pentsatzeko txokoa** liburuagatik eta 2022an **Xabier Lete saria Zoonomia** lanagatik.

Zoonomia



«Atseginez, dibertimenduz eta plazerez irakurtzen den poema liburua da, tematikaren garapenak dinamika erakargarria duelako, eta estiloak naturaltasun eta edertasun minimalista. Gaiari dagokionez, emazte/ama gaztearen hausnarketa ezberdinei ematen die bide, tartean kontziliazioa eta etxekolanen partekatzearen auziari, besteak beste. Sei ataleko egituran zehar, maitasunaren eta desioaren, gizon eta emakumeen erreturekin batera, familiaren eta haur haztearen nahiz eguneroko bizitzaren auziak jorratzen ditu ingenio, ironia eta umore fi nez, baina baita sakontasunez ere, liburuan oinazea, ukitu tragikoa eta benetakotasuna nabariak direnez. Poetak bere barneko emozioen

adierazpide bilakatzen ditu animaliak, bestiario pertsonal bat osatzeraino, tradizioaren, zientziaren, esperientzia kulturalaren eta hausnarketa pertsonalaren emaitza bihurtuz. Liburuaren gaiaren adierazbidea da piztiarioa, hortaz, eta «nire hezur arteko zootik ateratzen den emea» agertzea du xede nagusi.» (Epaimahaiaren aktatik)

Nerea Arrienen argitalpenak

Pentsatzeko txokoa (2016)

Hirutter (2017) **N ARR**

Atrapa eguna (2017)

Eskola hodeian (2018)

Zazpigarren olatua (2019)

Etxegabetuak (2020)

Jende likidoa (2021) **N ARR**

Zoonomia (2022) **P ARR**

Kritikak esandakoak

“... Ugaztun, arrain, narrasti eta abarren taxonomia dute buru poemok, eta ezkata, luma, apatx, letagin eta arantzak dira han-hemenka. Animalion jokabide zein ezaugarrien xedatze poetikoak bide ematen dio animalia ere baden gizakiaren jokabide eta ezaugarrien inguruko hausnarketari. Zehazki, emakumetasuna eta amatasuna dira ardatz bilduman, eta identitate horien arteko nolabaiteko talkak familia, zaintza, desira, maitasuna, gizonen eta emakumeen arteko harremanak eta beste hainbat gai dakartza orriotara: “Sugearen mudak dira nire jantziak / ezkatez eginiko nortasunak: / ama, alaba, maitalea, etxekoandrea, / badakizu zuk, biluzik ikusten nauzun saihets gabeko Adamak, / horiek eranstea / benetan zaila dela”. Narratiboena den Bos behia poemak iradokitzen duen ariketa ere bada, beraz, lan hau: mingarri suerta badakiguke ere ispiluaren parean jartzearena, alegia.

Atentzioa ematen du olerkiok osatzeko erabilitako hizkera poetikoak: gailentzen den kutsu zientifikoaz gain, kultura-ondare eta aztura ezberdinei egindako erreferentziek zein erlijioari loturikoek aberasten baitute, irakurleari gozagarri baina zorrotz ere bazaion irakurketa proposatuta...”

Maddi Galdos Areta / Argia, 2022-07-17

“... Berezko zoo bateko animaliak daude ikusgai poema-sorta honetan. Horietan guztietan emakumezko identitatea nabarmentzen da, gaur egun izaera horren konnotazio eta rol anitzei erreparaturik: lan merkatuko zein etxeko behargina, ama, maitalea, prekariedade ekonomikoa jasatea edo gizonen mende bizitzea, gizartearen indarreko balioak kritikatu. Oso bestiario pertsonal baten aurkezpena, idazleak ongi seinalatzen duena hasieran: “Bestia guztiei ateak irekin nahi dizkiet, / espezie oso bat iraungitzeaz dagoelako nire baitan”. Baita azken poeman ere: “Entzun / astiro zahartu nahi ez duen aberea, / entzun / nire hezur arteko zootik ateratzen den emea”. Ezin zaie, beraz, ukatu batasuna poemei, haien gidalerroak ondo taxutu baititu autoreak.

Baliabide poetikoei dagokienez, errepikapenak, aliterazioak eta hitz-jokoak ongi zaindu ditu ironia eta dibertimenduzko efektuak lortuz. Horrekin batera, originaltasun handiko metaforak eta irudiak erabiltzen ditu Arrienek. Animalia desberdinen ezaugarriak abiapuntutzat harturik gizakion jokamoldeekin paralelismoa egiten du, adibidez, erlauntzaren irudia Covidaren itxialdia adierazteko edo hipopotamo eta hipotekaren arteko elkarketa: “hipotekamoa”. Geruza asko daude poemen esanguran eta batzuetan argi geratzen da animalia- eta ezaugarri-arteko uztardura (elefantea eta oroitzeko ahalmena; mikak eta objektu distiratsuekiko lilura); bestetan, aitzitik, ostendu egiten da eta kriptikotasunean erortzeko arriskua antzeman daiteke.”

Paloma Rodríguez-Miñambres / El Diario Vasco, 2022-07-30

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Nerea_Arrien

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8615>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8605>

Pamiela

<https://www.pamiela.com/index.php/colecciones/euskara/literatura/poesia-euskaraz/zoonomia-detail>

Erein

<https://www.erein.eus/autor/nerea-arrien>